



ARARTEKOAREN AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAREN AURREAN: 2012KO URTEKO TXOSTENA

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 20a

Legebiltzarreko lehendakari andrea, mahaikideok, lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernukideok. Egun on.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan agertzea Ararteko erakundearen 2012. urteko ohiko txostenaren berri emateko. Joan den maiatzaren 29an Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen aurrean agertu nintzen, txosten hauxe ezagutarazteko asmoz. Agerraldi hartan herritarrek iaz egin zizkiguten kexen analisi kuantitatiboa egin nuen, labur azaldu nituen erakundeak burututako jarduerak, txosten berezi edo monografikoen eta gomendio orokorren berri eman nuen, eta agerian jarri nuen herri-administrazioek zenbateraino betetzen duten Arartekoari laguntzeko betebeharra. Gaur, osoko bilkura honen aurrean azalduko dut Arartekoa arautu zuen legeak "Autonomia Erkidegoko eskubideak babestearen egoeraren balorazio orokorra" deritzona. Mintzaldi honetarako eman didaten denboran, ezin da behar bezala adierazi eskubideak zenbateraino babesten diren Arartekoaren jarduera antolatzen duten 28 arloetako bakoitzean eta Haur eta Nerabeentzako Bulegoan. Horregatik, gure balorazioaren alderdirik garrantzitsuenak azpimarratuko ditut, pertsonen eskubideak ongien babestearen ikuspegitik begiratuta eta Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta euskal udalen sailen jarduerak eta politika publikoak kontuan hartuta, bereziki nabarmenduz eskubideak babestearen ikuspuntutik ahulenak diren taldeak.

Nire agerraldiaren edukiari zuzenean heldu aurretik, iaz egin genuen lanaren daturik esanguratsuenak aipatu nahiko nizkizueke. Oro har, 2012an, 11.770 jarduera burutu ditugu herritarrei kasu egiteko eta administrazioak ikuskatzeko (kexak, aurrez aurreko arreta gure hiru bulegoetan, telefonozko kontsultak eta ofiziozko jarduerak), 2011. urtean, berriz, 8.252 jarduera izan ziren; beraz, %42,60 egin dute gora. Gasteiz, Bilbo eta Donostiako gure hiru bulegoetan 7.001 laguni egin zaie kasu; horrek argi erakusten du gero eta garrantzitsua dela bulego horietan jendea hartzen duten Arartekoko langileek herritarrei eskaintzen dieten informazio eta aholkularitza zerbitzua. Izan ere, legeak exijitutako baldintzak betetzen badira, langile horiek herritarren erreklamazioak kexa-espeditenteen bitartez bideratzen dituzte, ebazteko ahalmena duten erakundeei helarazten dizkiete, edo arazoaren konponbidea ondo bideratzeko behar den laguntza juridikoa ematen diete. Euskal herritarrei zerbitzua egiteko 11.770 jarduera horietaz gain, 89 bilera egin ditugu gizarte-erakundeekin, 55 bilera zenbait herri-administrazioekin, eta 19 ikuskapen-





bisita egin ditugu. Era berean, 3 gomendio orokor onartu ditugu, eta 3 azterlan monografiko prestatu.

lax, kexa sortarazi zuen administrazioaren jarduera aztertu ondoren, jarduera okerren bat egon dela iritzi genion azterturiko kexetatik %55etan. Eragindako administrazioak kexa sortarazi zuen jarduera zuzendu eta aldatu du kasuetatik %85,78tan.

Oso pozik egiaztatu dugu, berriz ere, joan den urtean ETak ez zuela ekintza kriminalik burutu, 2010eko urrian indarkeriari utzi ziola jendaurrean iragarri ondoren. Ez da hildakorik, zauriturik, mehatxaturik, hertsaturik edo estortsio egindakorik izan. Giza eskubideentzat oso berri ona da hori. Nolanahi ere, giza-eskubideak babestearen ikuspegitik, baldintzarik jarri gabe desegin dadila exijitu behar diogu ETari. Guztion ardura da ahaleginik handiena egitea azken hamarkadetan jasan dugun izugarrikeria bukaraziko duten zertzeladak indartzeko, Euskadin aldi historiko berri bat argitzeko. Aldi berri horren oinarri izango da, salbuespenik gabe, giza eskubideak eta horiei eusten dieten balioak errespetatu eta babestearen etika, baita talde terroristen biktimeen eskubideak -legerian bildutakoak- oso-osorik betetzea ere. Terrorismoaren biktimek egia ezagutzeko, justiziarako, memoriarako, ordaina jasotzeko eta parte hartzeko dituzten eskubideak (4/2008 euskal Legean bildu eta araututako eskubideak dira horiek) oraindik ez dituzte legean aurreikusitako edukiaz erabat hornitu, ezta guztiz osatu ere, eta horrek bi betebeharrak dakartza berekin: legezko betebeharra eta betebeharrak etikoak.

Aldiz, tamalez, 2012. urtean indarkeria matxistak Euskadin 2 emakumeri kendu die bizia, Caridad de los Ángeles Rodríguez Arrietari, Tolosan, eta Tere Egurrolari, Asparrenan –geroago mintzatuko naiz luzeago gai horretaz-.

Hainbeste emakume arriskuan jartzen dituen gaitz horrek hiru hilketa bortitz aurpegiatu dizkigu azken asteotan: Amagoya Elezcano, Jenni Rebollo eta Ada Ortuya erail dituzte. “Zibilizatu” deritzan ezein gizartek ezin du kaltegabe atera eta alde batera utzi hunkitzen gaituen indarkeria hori, eskura ditugun baliabide guztiak abiarazi behar ditugu hori geldiarazteko.

1. HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA

Ondoren, HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN, gairik garrantzitsuenak azalduko ditut. Dakizueenez, bulego horrek Arartekoaren baitan jarduten du. Bulego horren lana honela laburbildu daiteke, ikuspuntu kuantitatibo bati jarraiki: 313 kexa-espeditu izapidetu dira, horietako 13 ofiziozkoak; EAEn haurren txirotasunaren errealitatea aztertzeko ikerketa bat egin da; hainbat gizarte erakunderekin lankidetzan aritu da eta topaketa eta eztabaida foroetan parte hartu



du. Hala ere, haurren eskubideen egoerari buruzko amaierako azterketa egin nahi bada, aintzat hartu behar dira gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko dispositiboak buruz izapidetu diren 1.010 erreklamazioak ere; izan ere, ehuneko handi batean, kexak egin dituzten familien artean adin txikikoak zeuden.

Datu horrek, aipaturiko ikerketan jorratutako errealitatearekin batera, txostenean azpimarragarria den lehenengo ondorioa aterarazten digu: krisiak gero eta inpaktu handiagoa dauka haur eta nerabeengan. Gabezia materialak direla eta, haurrak desabantaila eta ahultasun egoeran egongo dira etorkizunean, gabeziek eragina izan baitezakete beraien hezkuntza-, gizarte- eta lan-garapenean. Horregatik, gure gizarteak hainbat erronkari aurre egin behar diela ikusita, funtsezkoa da erabakiak hartu baino lehen, haurrak kontuan hartzea.

Hezkuntza arloari buruz –hortxe kokatzen dira norbanakoek egindako kexen ia erdiak (%46)-, orain eskolako bizikidetzak bakarrik aipatuko dut, gainontzeko gaiez geroago mintzatuko bainaiz, hezkuntza arloan kudeatutako kexez hitz egitean.

Eskolako bizikidetzari dagokionez, on deritzogu Hezkuntza Saila egiten ari den ahaleginari, parekoen artean gertatzen diren tratatu txarrei lotutako gertaera posible guztiak ahalik eta arinen, eraginkortasun eta segurtasun handienaz aztertzeko. Hala ere, berriro diogu, jarduera burokratizatuak saihestu behar dira eta gida berriak sistematikoki eta eraginkortasunez ezartzean sakondu, helburu saihestezin hauei erantzun ahal izateko: tratatu txarren errealitatearen diagnosi egokia lortu, biktimei laguntza eta babesa eman, eta eragindako familiekin komunikazio ona izan.

Babesik gabe dauden haurrentzako gizarte zerbitzuen eremuan, hobetu beharra dago udalaren gizarte zerbitzuetan haurrak dituzten familiei eskaintzen zaien arreta (zerbitzu horiek babesgabetasun egoera arin eta erdi-mailakoei kasu egiteko ardura daukate); izan ere, egoera ekonomikoa dela medio, gora egin du seme-alabak zaintzeko zailtasunak dituzten familien kopuruak.

Emantzipazio prozesuak modu berezian zaindu behar direla azpimarratu nahi dugu berriro ere. Gainera, bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan, aintzat hartu behar dira euren etorkizunerako oso garrantzitsuak izango diren kontu batzuk, administrazioarekin eta dokumentazioarekin lotutakoak.

Oraindik ez daukagu bakarrik dauden adingabe atzerritarrei premiazko harrera egiteko protokolo komunik edo babesik gabe dauden adingabeentzako egoitza zentroetako zaintza eta segurtasun zerbitzuen jarduerarako protokolorik. Gure ustez, dagoeneko saihestezina da langile horiek zentroetan daukaten eginkizunari eta, horren ondorioz, daukaten kokapenari, esku-hartzeari eta kontrolari buruzko hausnarketa sakona egitea.





Aurrerapausoak eskatzen jarraitzen dugu genero indarkeria jasan duten emakumeen seme-alaben diagnosia eta azterketa egiteko, familia homoparentalek eta sexu bereko bikoteek aurkitzen dituzten oztopo formal edo administratiboak desagerrarazteko eta familia elkarguneen eta epaitegi deribatzaileen arteko koordinazioa eta lankidetzaz lortzeko.

Osasunaren arloan, ikusi dugu zenbait aurrerapen egin direla gaixotasun kronikoei lotutako estrategia garatzean, eta garatzen hasi berri dela EAEn Gaixotasun Arraroei buruzko Estrategiari lotutako Ekintza Plana. Haurren eta gazteen buruko osasunaren arloan, bereziki premiazkoa iruditzen zaigu izaeraren nahasmendua duten pertsonen ematen zaien erantzuna, horietako asko nerabeak eta gazteak baitira. Bestetik, ez ditugu alde batera utzi behar jokamolde-asaldurak. Halaber, esan nahi dut bat gatzela Haurren Eskubideei buruzko Batzordeak TDAH delakoa pairatzen duten haurrei sendagai gehiegi agintzearen fenomenoaz aztertzeko premiaz Espainiari egin zion iradokizunarekin.

Gazteentzako justizia sistemaren zentroen sareak eta gizarte- eta hezkuntza-programek, dirudienez, neurri egokiak mantentzen dituzte epaitegien beharrak eta erabakiak asebetetzeko. Edonola ere, honako hauek hobetu daitezke: adingabeentzako ofiziozko berariazko txanda, kontziliazioa gehiago erabiltzea eta, modu orokorragoan, haur eta nerabeentzako justizia adiskidetsuagoa eta hurbilagoa. Horrela, beti bermatu ahal izango da haurrei adituko zaiela, une oro behar bezalako informazioa jasoko dutela eta euren intimitatea eta pribatutasuna babestuko dela.

Joera homosexuala (gay eta lesbianak) edo bisexuala eta transgenero edo transexual identitatea duten nerabeen egoera dela-eta, Europako Rainbow proiektuaren esparruan EAEn egindako lanak agerian utzi du hezkuntza sistemak hutsune nabarmena duela sexu- eta genero-aniztasuna izateko eskubideekiko erabateko errespetua sisteman barneratzeko, ikusarazteko eta sustatzeko.

Azkenik, haurren eskubideak sendotzeko eta horren gaineko gizarte-kontzientzia zabaltzeko deia egin nahi dugu berriro ere. Iritzia azaltzeko eta informazioa eman eta jasotzeko eskubidearen gainean, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 12. eta 13. artikulua nabarmendu nahi ditugu. Horregatik, egiaz eta modu egonkorrean parte hartzeko bideak abiarazten aurrera egitera animatu nahi dugu, horiei esker bermatuko baita adingabeen partaidetza euren bizitzako hainbat arlotan.





2. HEZKUNTZA

2012an izapidetutako kexen kopurua aintzat hartuta, esan dezakegu hezkuntza arloa erakunde honen jardura osoan zama erlatiborik handiena duen arlo gisa sendotu dela.

Ikasleak onartzeko prozesuari buruzko kexak behin eta berriz jasotzen ditugunez gero, aurten ere indarrean dago, guk uste, erakunde honek hezkuntza-administrazioari egindako gomendio hau: hezkuntza-administrazioak kontu handia izan behar du ikasleak onartzeko prozesuak kudeatzean, plaza nahikorik ez dagoen kasuetarako ezarrita dauden lehentasunezko irizpideak zentzuz ezarriz eta beharrezkoak diren helburuak lortzen –adibidez, familiako eta laneko premiak bateratzea– agian laguntzen ez duten irizpideak aplikatzea berraztertuz edo berriz hausnartuz.

Orduan, zera azpimarratu nahi dugu: eskolatzeko proposamenak lurralde-batzordeek egiten dituztenean, hezkuntza-administrazioak bermatu egin beharko du ikastetxeen finantzaketa-baldintzek, baita familiei eskola-garraio, jantoki eta materiala erosteko ematen zaizkien laguntzek ere ahalbidetzen dutela, adierazi den bezala, herritar guztiek unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztietarako sarbide unibertsala izatea; are gehiago uneotan, familia batzuek adierazi baitute zailtasun ekonomikoak dituztela egin diren hainbat proposamenek sortzen dituzten eskolatzeko gastuak beren gain hartzeko.

Oro har, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eman dizkigun datuak kontuan hartuta, ontzat jo daiteke hezkuntza-eskaintza etengabe hobetzeko ezarri diren adierazleak betetzea. Dena den, zero eta hiru urte bitarteko hasierako etapan sortzen dira, oraindik ere, zailtasunik handienak, batez ere bi urteko gelen eskaintzan.

Krisi ekonomikoaren egungo egoeraren ondorioz, gora egin du hezkuntzen eta lanbide heziketako ikasketen eskaerak. Horregatik, Hezkuntza Sailari adre eman nahi diogu oraingo eskaintza zabaltzeko dauden aukera guztiak agortzen saia dadin eta, horrela, goi-mailako ikasketetarako eta hezkuntzen prestakuntzarako sarbidea bidera dezan, gure gazteei lan-merkatuan sartzea errazteko.

Orobat, beste behin adierazten dugu eskolako ordutegian bizkorrago erantzun behar zaiela osasun-behar bereziei.





3. OSASUNA ETA OSASUN ESKUBIDEA

laz jasotako kexek agerian jarri dizkigute osasunerako eskubidea baliatu ahal izateko legezko konfigurazio berriak dakartzan ondorioetako batzuk, adibidez, botika batzuekiko intolerantzia egoerei kasu egin beharra, bada, bestela, kaltetuta gerta daiteke osoko tratamendua jasotzeko eskubidea. Zorionez, apirilaren 20ko 16/2012 Legegintzako Errege Dekretua baliogabetu izanak aseguru mailarik ez zuten taldeei (besteak beste, etorkinei) arreta ematen jarraitzea ahalbidetu du.

Aurreko urteetan bezalaxe, ohiko itxarote-denbora gainditu duten kexak oinarrituzat jo ditugu. Nolanahi ere, ebakuntza baten zain dauden pertsonak gutxi gorabehera zenbat denbora itxaron beharko duten jakiteko informazio-sistema bat garatzea lagungarria izango da jasotako hainbat kexatan aipatzen den ziurgabetasuna gainditzeko.

GAIXO KRONIKOEN ESKUBIDEEI DAGOKIENEZ, Osasun eta Kontsumo Saila osasun-sistema aldatzeko egiten ari den ahalegina nabarmendu nahi dugu, gaixo kronikoen premietara egokitzeko, osasun emaitza hobekitzeko eta eraginkorragoak izateko.

Gure osasun-administrazioak pentsatutako kronikotasun estrategiaren bidez, gaixoa sistemaren erdigunean jarri nahi da, haren zainketa jarraitutasuna bermatu nahi da lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren arteko koordinazioa hobetuz, haren gaitzaren ezagutza sustatu nahi da eta gaixoari bere burua zaintzeko tresnak eman nahi zaizkio.

Aurrerapenak ikusi ditugu fibromialgia eta neke kronikoa dituzten pertsonen arretan: jarduteko protokoloak ezarri dira, profesionalak prestatu dira eta gaixoen parte hartu dute. Alabaina, ez dugu hobekuntzarik sumatu sentikortasun kimiko anizkunak eta elektrohipersentikortasunak dituzten pertsonen dagokienez.

BURUKO ARAZO EDO NAHASMENDUREN BAT DUTEN PERTSONAK direla eta, azken urteetan aurrerapenak egin diren arren, errehabilitazioko egitura ertainen erakundeek ez dietela laguntzen edo laguntza hori nahikoa ez dela ikusi da buruko osasunaren arloan (ospitaleak/eguneko zentroak, ikuskapen-maila ezberdineko ostatu-baliabideak, okupazio zentroak, komunitate terapeutikoak, gizarte-klubak eta errehabilitazio psikosozialeko baliabideak). Horixe nabarmentzen ari gara azken urte hauetan.





Arazo horri aurre egiteko, zenbait ekimen jarri behar dira abian lehenbailehen, eragindako administrazioen artean (osasuna, gizarte-zerbitzuak eta etxebizitza) akordioak ahalbidetzeko. Beraz, bertan esku hartu beharko dute autonomia-erkidegoek, aldundiek eta udalek.

4. GIZARTE INKLUSIOA

Egungo krisi ekonomikoa eta soziala dela-eta, familiek euren betebeharrei eta ohiko gastuei aurre egiteko dituzten zailtasunak handitu egin dira. Langabezia, ezegonkortasuna, diru sarreren gutxitzea, ziurgabetasuna edo pobrezia arriskua gero eta familia gehiagok nozitzen du Euskadin (horietariko asko gizarte-klase ertainekoak dira). Horrekin batera, ugaritu egin dira pobrezia eta urritasuna pairatzeko arrisku egoerak, diru-sarreren eskasiarekin lotutakoak. Aipaturiko egoerek ezaugarri kezagarriak dituzte, bai eta aurrera begira irauteko eta kronifikatzeko arriskua ere. Horren guztiaren aurrean Estatu sozialak bere ahalmen eta baliabide guztiak erabili behar ditu, Euskadin bizi diren gizon-emakume guztiei bizitza duina, bizitza-aukera berdinak, eta eskubide sozialak eta ekonomikoak (zeintzuk giza eskubideak diren) behar bezala bermatzeko, bai eta Estatu sozialaren oinarriko printzipio diren gizarte inklusioa eta kohesioa bermatzeko ere.

laz gora egin du egiazko pobrezia- eta urritasun-egoeren eraginak, baita ezkutuko pobrezia moduen eraginak ere. Hala ere, 2012ko egiazko pobrezia eta urritasun tasak 1986 eta 1996ko mailetatik urrun daude, neurri handi batean DBE/EPO/GLL prestazio sistemaren eragin onari esker.

Horrexegatik, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari, gizarte kohesio eta babeseko faktorea den aldetik, beharrezko baliabideak eta tresnak eman behar zaizkio, bazterketa-arriskua prebenitzeko lanari aurre egin ahal izateko, lan hori oso garrantzitsua baita.

Lanbidek bere gain hartu duen DBEren eta EPOren kudeaketak urrats berehalakoak eta eraginkorrak egin behar ditu, herritarrentzako arreta hobetu dadin. Izan ere, gizarte inklusioari buruzko Arartekoaren arloan bideratu diren 1.010 kexetatik gehienetan aipatzen da Lanbideren jarduera. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketa iaz oso txarra izan da, administrazio txarreko kasu nabarmena. Eskaerak egiteko zailtasunak, eskaera horien gaineko erabakiak atzerapen handiegiarekin ematea edo errenta-eteteak bermeak behar bezala betetzen ez dituzten prozedurak eta formak erabiltzea ez dira bidezkoak. DBE eta EPOren kudeaketak gutxieneko kalitate estandarrak erdietsi behar ditu, batez ere honako hauek: ebazteko epeari dagokionez, sistema bizkorra izatea, zerbitzua erabiltzen duten pertsonen tratua duina, eraginkorra eta beraien zertzelada pertsonalei egokitua ematea. Horretarako, nahikoak eta egokiak izan behar dute Lanbideren bulego guzti-guztietako baliabide



materialek -bereziki aplikazio informatikoe- eta giza baliabideek, egiten den zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko.

Bazterketa kontuetan lan egiten duten gizarte erakundeak murrizketa handiak pairatzen ari dira, eta horrek beren lana zailtzen du. Halaber, finantzaketa arazo larriak izaten ari direnez gero, arriskuan dago beraien jarraitutasuna. Egiten duten lana oso garrantzitsua da gure gizartearentzat, herritarrei hurbiltasuna eta malgutasuna ematen dizkietelako eta herri-administrazioetara hurbiltzen ez diren edo haiek ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsoneri arreta ematen dielako; orduan, erakunde horiek egongo ez balira, arretarik gabe geratuko litzateke esparru humanitario hori. Beraien lana aldezea funtsezkoa da gizarte kohesiorako eta desberdintasunen aurka borrokatzeko.

Bestetik, etxerik gabeko pertsonen euren oinarrizko premiak beteta izan behar dituzte: alegia, janaria, bizilekua -neguan batez ere-, higiena eta jantzi egokiak. Gutxienezko betekizun humanitarioak dira eta ez dira saihestu behar gizarte murrizketen ondorioz. Aurrekontu-sail horiek lehenetsi behar dira krisialdian, horietan areagotu egiten baitira pertsonarik ahulenen zailtasunak.

5. POLITIKA PUBLIKOAK BEHAR DITUZTEN TALDEAK

Idazpuru honen azpian bildu dugu zenbait talde ahulenekin zerikusia duten jardueraz iaz egin dugun ebaluazioa. Talde horiek politika publikoen beharra daukate, Konstituzioaren 9-2 artikulua ezartzen duen berdintasun benetakoa eta eraginkorra izateko eskubidea bermatze aldera. Ezaugarri horiek dituzten beste talde batzuk azalpen honen atal berezietan aipatzen dira.

Norberaren autonomia sustatzeari eta **mendekotasun** egoera artatzeari dagokienez, gure ustez funtsezkoa da euskal herri-administrazioek daukaten eskumena erabil dezaten, dagokion taldearentzako babes-maila gehigarriak ezartzeko, batez ere Estatuan egin diren lege-aldaketak ikusita, atzerakada nabarmena ekarri baitute politika horietan. Hori osatzeko, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea eta haren arauen garapena ezarri behar dira.

Adineko pertsonen, dudarik gabe, ekarpen handia egiten diote gizarteari, eta dauden estereotipoen aurrean, zaintzaileak dira. Horrek erakusten du adinekoak ondasun eta oinarrizko euskarri direla krisi ekonomikoaren ondorioek larriki kaltetu dituzten familiak mantentzeko. Errealitate hau oso kontuan izan behar dute pertsona nagusientzat dauden politika publikoek. Halaber, egiazta daiteke 65 urtetik gorako gizon-emakume askok gero eta gehiago eskatzen dutela zahartze aktiboa ahalbidetuko dituzten kondizioak eragitea bai eta beraienez sortutako baliabideak eta politika publikoak egiteko eta kudeatzeko orduan euren partehartze





handiagoa ere. Eskaera horiek ontzat ematen ditugu, pertsona nagusien osasuna, ongizatea eta bizitza-kalitatea hobetuko lituzketelako eta, halaber, gizarte osoarentzat onuragarriak izango lirakeelako.

Onartzen ari diren zorrotasun-politikak, era berean, arriskuan jartzen ari dira **ezinduen** oinarrizko eskubideak. Horrela, esate baterako, zera egiaztatu dugu: laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa I eta II. Graduetara zabaldu dela alde batera utzita –neurri hori oso egokia iruditzen zaigu-, aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko hartu diren gainontzeko neurriak atzerakada nabarmena ekarri dute -Ararteko erakundearen ustez-norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasun egoera artatzeko politiken garapenean.

Inguru fisikora, hiriguneetara eta eraikinetara iritsi ahal izatearekin lotutako salaketa asko egin dituzte, berriro ere, ezintasunen bat duten pertsonen.

Euskadin, zerbitzu eta prestazio publikoak jasotzeko orduan, ez da bereizketarik egiten ari pertsonen egoera administratiboaren edo jatorrizko herrialdearen arabera. Guztiz egokia iruditzen zaigu hori, giza eskubideen exijentzia bat baita **atzeritarrei** dagokienez.

Horren harira, esan nahi dugu gizarte-prestazio eta gizarte-zerbitzuen arloan ahultasun-egoeraren eta gizarte-zailtasunaren balorazioa hartu behar dela irizpidetzat, jatorria eta egoera administratiboa albo batera utzita. Gure artean bizi diren pertsonak dira, ez baita ezarri atzeritarrak sartzeko eta hemen bizilekua izateko araudia. Hiru urtez hemen bizi ondoren, bizitzeko eta lan egiteko baimen administratiboa eskatu ahal izango dute. Denbora horretan eskubideak mugatzen bazaizkie, ordea, baztertuta egongo dira.

Ijito herriaren sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planean xedatutako neurriak betearazteak lehentasunezkoa eta betekizuna izan beharko luke dagokien herri-arduradunentzat. Erabakigarria da arduradun publikoek jarrera irmoa izatea ijitoen eskubideak errespetatzearen eta bereizkeriaren aurka borrokatzearen gainean. Orobat, erabakigarria da diskurtso publikoan herri horrek pairatu eta pairatzen duen jazarpena eta arbuioa gogoraraztea, eta ijitoen sustapenerako eta gutxiengo kultural gisa onartzeko dauden konpromisoak bere baitan biltzea.

Lesbiana, gay, transexual edo bisexual diren pertsonen eskubideen ikuspuntutik, azpimarragarriak dira transexualen eskaerak, beraien erabateko gizarteratzea errazteari dagokionez. Sexua aldatzeko osasun- eta lege-prozesuek talde horri sortzen dizkioten arazoak salatu dituzte. Berriki, 2012. urtean, Eusko Legebiltzarrak transexualei osoko arreta emateko berariazko lege bat atera izanak





eskaera horiei erantzun diezaike, betiere lege horren edukiak behar bezalako araudia garatuz gauzatzen badira eta, beharrezkoa den arloetan, dagokion diru-hornidura ematen bada.

Haur eta nerabe homosexual edo transexualei dagokienez, ikusi dugu, arestian adierazi dugunez, hezkuntza-sistemak hutsune handia duela aniztasun afektibosexualerako eta genero-identitaterako eskubideen erabateko errespetua sisteman barneratzeko, ikusarazteko eta sustatzeko. Jazarpen homofobikoa berriaz aintzat hartzeko mekanismorik ez dagoela ere ikusi dugu (nahiz eta gero eta azterlan gehiagok adierazten duten jazarpen-mota horrek eragin handia duela eskola-jazarpenean eta horrek izan ditzakeen ondorioetan), izan ere, berriazkotasun hori ez da kontuan hartu eskola-jazarpenerako dagoen protokoloan. Horixe jarri da agerian Europako Rainbow proiektuaren barruan Euskadin egin den ikerlanean. Rainbow proiektu hori Europako Batzordeak sustatu du (Justizia, Askatasun eta Segurtasuneko Zuzendaritzaren Oinarrizko Eskubideen eta Herritarren Zuzendaritza).

Egungo krisialdi ekonomikoan, euskal agintari publikoek bereziki jabetu behar dute oso garrantzitsua dela **familiei** diru-laguntza ematean zalantzarik ez egitea, izan ere, horiek gizartean babes-emaile gisa dihardute premiazko egoeretan, ongizate estatuaren eginkizunak osatuz eta, askotan, ordezkaturik. Era berean, krisia atzeratzen ari da lana eta familia bateratu ahal izateko neurriak abiaraz daitezten. Kexen ikuspegitik begiratuta, 2012an sortu den arazorik nabarmenena izan da atzerapenak gertatu direla lanaldia murrizteagatik edo seme-alabak zaintzeko eszedentziagatik laguntzak onartzean edo ordaintzean. Kudeaketa-arazoek sortu dute atzerapen hori, eskaera asko jaso baitira. Badakigu arazo hori aurtengo hasierako hilabeteetan konpondu dela.

ETAren eta Euskadin jardun duten gainontzeko talde terroristen **biktimak** aipatu ditugu lehenago, eta horien eskubideen gainean garatzen eta sakontzen jarraitu behar dela nabarmendu dugu. Biktima horiez gain, beste batzuk ere aipatu nahi ditugu, hain zuzen ere 2011ko martxoaren 31n Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Legez Besteko Proposamenak babestutakoak: motibazio politikoko indarkeria-egoeran egin diren giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimak. Dakizuenez, torturen biktimez mintzo gara, polizia-jarduera batzuen biktimez, eta abarrez. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua izan zen biktima horien eskubideak aitortzeko lehen urratsa. Dekretu hori 1960tik 1978ra bitartean, giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa da. Gure ustez, erabakitasunez eta premiaz aurrera egin beharra dago, giza eskubideen urraketa ikaragarri horiek trabarik gabe argitzeko eta 1978ko Konstituzioa aldarrikatu ondoko biktimen eskubideak lehenbailehen aitortzeko.





6. BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN OSOTASUN FISIKOA

Generoaren ikuspuntutik, krisiak emakumeengan duen eragin berezia nabarmendu behar dugu. Gainera, horien kargura daude adin handiko, mendekotasunak dituzten pertsona eta haur gehienak. Emakumeak, bereziki guraso bakarreko familien titularrak, talde bereziki ahula bihurtu dira krisi-egoera honetan, eta, horrela, aspalditik gure inguruan ere antzeman genuen txirotasunaren feminizazioa bortitzagoa bilakatzen ari da.

Bestalde, arlo honetan ere bereziki agerian jartzen da ekintza positiboak abiarazteko premia. Premia hori ikusten da egoera arras ahulean dauden emakumeei -adibidez, emakume etorkinei edo emakume ezinduei- dagokien guztian, bereizkeria bikoitza nozitzen dutelako. Horien egoera bereziari aurre egiteko, ezinbestekoa da ekintza positibo bereziak eta oso biziak abiaraztea, berdintasun material handiagoa lortzeko eta gizarte-bazterketa prebenitzeko. Baldin eta zertzelada horietako bati sexu-esplotazioaren mende egotea gehitzen badiogu, edo norberaren bizitza, lana edo sexua askatasunez garatzea eragozten duten muturreko egoeretan egotea, errazago sortzen da izugarritzko ahultasuna eta errazago agertzen da indarkeria sexista ahalbidetzen duen mendekotasuna.

Aukera hau baliatu nahi dut *Adingabekoei balioak transmititzea* izenburuko txosten berezian Arartekoak 2009an atera zituen ondorio larrienetako batzuk gogora ekartzeko. Denbora luzea igaro den arren, han ateratako ondorio gehienak oraindik indarrean daudela salatu behar dugu, batez ere kontrabaliario matxisten eskema iraunarazteari dagokionez: galdera-sortari erantzundako lau nerabetatik batek pentsamolde matxista erakusten du oraindik ere.

Orain egun batzuetako hilketa matxisten ostean, zer hobetu behar den hausnartzeko garaia da. Sarritan adierazi dugunez, eraso larria edo erailketa gertatzen den bakoitzean, zehatz-mehatz ebaluatu behar da gertatutakoa, eta arlo hauetan zer hobetu daitekeen aztertu: poliziaren eta gizartearen babesa, informazioa, biktimei laguntzea, tratu txarrak ez antzematea; horren helburu bakarra horrelako kasuak berriz ez gertatzea da.

Emakundek bultzatu zuen genero-indarkeriari buruzko erakunde arteko Hitzarmenaren barruan, Erakunde arteko Talde Teknikoa sortu zen, eta bertan eraginkortasunez parte hartzen du Arartekoak. Talde hori aparteko foroa da "genero-indarkeria" gaitz sozialaren kontra politika egokiak koordinatzeko.



7. ESPETXERATUAK ETA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Presoen bizi-baldintzek etengabeko kezka sortzen diote Arartekoari. Horregatik, defentsa-erakunde honek irizpide hau erabiltzen du: eskumenekin lotutako trabek kexa bat formalki bideratzea ahalbidetu ala ez, kexa hori oinarrituta dagoela ikusten badugu, gure esku dagoen laguntza guztia eman behar diogu kexagileari. Halaxe egin dugu iaz ere, borondate oneko gestioen bitartez. Aitortu behar dugu, bidezkoa baita, gestio horietan funtsezko laguntza eman digutela gure erkidegoan kokatuta dauden hiru espetxeetako zuzendaritzek. Laguntza hori zabaltzea espero dugu, izan ere, espetxe horiek osasun-zentroak ere badirenez gero, Osakidetzaren sarean sartuta daude.

Erakunde honek beti aldeztu izan du komenigarria dela Euskadik bere Autonomia Estatutuan bilduta dauden espetxe arloko eskumenak bereganatzea. Azken batean, kontua da euskal gizartea bere izenean egiten den zigor-betearazpenaren erabileraz ardua dadin, horren ondorioak ezagut ditzan eta, gizarte-justiziako parametroetatik abiatuta, espetxe-eredu propioaren diseinua eta kudeaketa susta dezan. Eredu horrek ez luke areagotu behar bazterketa, eta ez lituzke kroniko bihurtu behar, hain sarri gertatzen den moduan, gure espetxeetako pertsona gehienengan delitua egiteko orduan eragina izan ohi duten faktoreak.

Horretarako, Euskadin eragile bikain bat dugu: euskal elkarten sare aberatsak espetxe arloan egiten duen lana. Hirugarren sektoreko gure erakundeen bitartez, euskal epaitegiek gizarte-baliabideen euskarri fidagarria izan dute espetxe-zigorraren ordezkotzat tratamendu eta betearazpenen arloan legeak ahalbidetzen dituen formulak garatzeko. Joan den urtean, gehitu besterik ez dira egin erakunde horiek beren programak ez ixteko gairak beharrezko zailtasunak. Horregatik, gure iritziz, zigor-betearazpenean erantzukizunak dituzten gure botere publikoen agendan sartu behar da erakunde horien lana aldeztu eta aitortzea, baita beraien zerbitzu baliotsuak erabiltzea ere.

Azkenik, Arartekoa hainbat forotan mintzatu da terrorismoko delituen zigor eta espetxe tratamenduz, eta horietan aldeztu du preso orok, edozein delitu eginda ere, gizartratzea ondoen ahalbidetzen duen erregimenean bete behar duela bere zigorra. Erakunde honek ETA nahiz ETAK ordezkatzeko duena etengabe gaitzestea ez dago kontraesanean eskaera horrekin, aitzitik, indartu egiten du. Horregatik eskatzen dugu behin eta berriz preso guztiek zigorra beren bizilekuetatik hurbil bete dezatela eta preso guzti-guztiei ezar diezazkietela espetxetik atera ahal izateko ohiko arauetan xedatuta dauden baldintzak, adibidez, zigorraren zati jakin bat beteta izatea edo gaixotasun sendaezina izatea. Ildo beretik, aditzera eman dugunez, Parot doktrina deritzanak jokoaren arauak aldatzen ditu eta legean xedatutako zigor-ondorioak zenbaterainokoak izango diren aurreikusitako ahal izateko printzipioa urratzen du, askatasunik gabeko zigorra benetan betetzeko epea luzatuz. Orobat, berriz





eskatu behar dugu ken ditzatela talde eta delitu terroristen gaineko xedapen bereziak, hirugarren mailako erregimena ematea eta baldintzapeko askatasuna lortzea galarazten dutenak.

Justiziaren arloan, aztertu ditugun kasuei esker egiaztatu dugu krisiak zenbateraino moteldu duen gure epaitegiak giza baliabide eta baliabide material nahikoez eta ondo kudeatuz hornitzeko egin behar diren hobekuntzen erritmoa. Hori oso esanguratsua da iazkoa bezalako urte batean, izan ere, doako justiziaren, epaitegien antolaketaren, etxe kaleratzeen edo tasa judizialen inguruan sortu diren eztabaida handietan, inoiz ez bezala eskatu da bete dadila Justiziar, botere publiko gisa, konstituzio bidez eman zaion betekizuna, herritarren askatasuna eta berdintasuna egiazkoak bihurtuko dituzten baldintzak sustatzeko orduan. Aztergai dugun denboraldian, baldintza horiek okerrera jo besterik ez dute egin.

8. ETXEBIZITZA ETA KRISI EKONOMIKOA

ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEARI buruz, lehendabizi hauxe adierazi nahi dugu: egungo krisi ekonomikoa agerian uzten ari da ahulak direla bai indarreko araudia, bai euskal herri-administrazioek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea bermatzeko sustatzen dituzten planak.

Esku-lotuta ikusten ari gara ahultasun eta babesgabetasun egoerak sortu direla banketxeen produktu eta zerbitzuak erostearen ondorioz, baita banketxe batzuen jokaeraren ondorioz ere, bada jokaera horrek kontrolatu gabeko ondorioak ditu eta eragin handia izaten ari da familien bizimoduan. Egoera hori unerik larrienera iristen ari da hipoteka betearazpenekin.

Familiaren gainzorpetzearen aurrean, zordunari mailegua itzultzeko aukera emango dioten neurriak hartzea lehenetsi behar dute botere publikoek, baina, aldi berean, ahal den guztietan, hark etxebizitza galdu gabe. Etxebizitza galtzeak azken aukera izan beharko luke beti, izan ere, bizilekua ezinbesteko baldintza da nortasuna aske garatzeko, eta gizarte-bazterketaren kontrako babes-elementua ere bai.

Aipatutako hori ez da euskal herri-administrazio jakin bati dagokion gatazka. Hala ere, erakunde hau elkarlanean aritu da gaiarekin zerikusia duten eragile guztiekin, kaltetutako pertsonak -bereziki, hipoteka-zordunak- babesten aurrera egiteko. Horrela, Arartekoak etxea ordainean ematea erraztu behar dela aldeztu du, hipoteka-kreditu bat sinatzean nork bere gain hartutako erantzukizun guztia iraungitzeko bide gisa, bai behintzat etxe hori ohiko etxebizitza bada. Halaber, mailegua ordaintzean luzamendua ezar dadin gomendatzen du, baldin eta, bat-bateko arrazoiengatik, fede oneko mailegu-hartzailea egoera ahulean badago.





Arartekoa iritzi horren alde agertu da 2012an parte hartu duen foro guztietan: adibidez, Asturiasko Prokuradore Nagusi edo arartekoak antolatu zuen lan-jardunaldi batean ("Etxebizitza izateko eskubide konstituzionala eraginkortasunez babesteko neurriak, krisi ekonomikoko egoeran" zuen izenburu). Jardunaldi hartan, Espainiako Herriaren Defendatzaileak, Arartekoak eta autonomia erkidegoetako gainontzeko hamar herriaren defentsa-erakundeek adierazpen garrantzitsu bat onartu genuen krisi garai honetan etxebizitza izateko eskubideari buruz, eta hainbat neurri proposatu genituen etxe kaleratzeen arazo ikaragarriari aurre egiteko asmoz.

Era berean, 2013ko EHUren Uda Ikastaroetan, Ararteko erakundeak hausnartzeko eta eztabaidatzeko jardunaldi bat antolatuko du datorren hilean, gai hau hizpide hartuta: pertsonen eskubideak babestea horiek banketxeekin dituzten harremanetan.

9. HERRITARREN SEGURTASUNA

Polizi jarduera, jakina denez, jarduera garrantzitsuenetako bat da edozein gizarte demokratikotan, bere helburua herritarren eskubide eta askatasunak bermatzea baita, herritarren segurtasuna eta lasaitasuna zainduz eta horretarako delinkuentziaren kontra borrokatuz. Beraz, Ertzaintzako nahiz udaltzaingoetako agenteek egiten duten lanari balioa eman nahi diogu, eta lan hori eskertu. Polizia horiexei eragiten diete, hain zuzen, gure eskumenen erabilerak.

Gure iritziz, poliziak indarra erabiltzeak zehatz-mehatz eta zorrozki araututa eta xedatuta egon behar du. Arartekoak denbora luzea darama arlo horretan hobekuntzak eskatzen. 2011ko urrian gomendio orokor bat argitaratu genuen poliziaren jardueren eta praktiken berme-sistemari buruz, eta pertsonen eskubideak zaintzeko Legebiltzarraren goi mandataria naizenez, gaur Legebiltzar honen aurrean berriro esan behar dut oso premiazkoa dela gomendio hartan bildu ziren proposamenak onartu eta gauzatzea. 2011ko Arartekoaren gomendio orokor haren inguruko jarduerarik garrantzitsuenak Iñigo Cabacasen heriotzarekin lotutakoa izan zen, ertzain batek jaurtitako gomazko pilota baten inpaktuaren ondorioz hil baitzen. Gure esku-hartzea orduan abian zegoen prozedura judizialarekin guztiz bateragarria zen; halakoxea izan zen, adibidez, 2005eko uztailan Londoneko metroan poliziak Jean Charles de Mezenes tiroz hildako kasuan Polizi arloko Kexetarako Batzorde Independentek (IPCC) burutu zuen esku-hartzea.

Dakizuenez, ez genuen gure jarduera behar bezala amaitzerik izan, Herrizaingo Sailaren laguntza faltagatik, baina oraindik ez zaie erantzun mahaigaineratu genituen kuestioei (horiek ez direlarik, zorrozki, prozedura judizialean aztertutakoak), nahiz eta Iñigo Cabacasen heriotzatik 14 hilabete baino gehiago igaro diren. Agerikoa da gauzak ez zirela ondo egin, ez heriotza hori eragin zuen





polizi jardueraren aurretik, ez gero. Gertakari horretatik ondorio zehatzak atera ditzaten espero dugu, lehenbailehen hobetu ditzaten Ertzaintzak eta udaltzaingoek indarra erabiltzearekin zerikusia duten prebentzio- eta ikerketa-protokoloak, Arartekoak egindako gomendioen ildotik.

10.INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

Ingurumen gaitan partaidetza publikoa izateaz mintzatu ahal izan da, aurten ere, Arartekoa. Horrela, industriarik kutsatzaileen ingurumen-kontrolaren kudeaketan parte hartzea sustatu du, esate baterako, petrolioa fintzeko Muskizeko fabrikaren kasuan. Proposamen batzuk ere bildu ditugu, erabaki publikoak hartzean parte hartzeko, hala nola Euskadiko gas hobietatik gasa ohi ez bezala ateratzearen gai eztabaidatuan. Gai horri buruz, Fracking Ez Araba plataformak egindako kexaren gainean eman dugun ebazpenaren bitartez, botere publikoek baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko duten betebeharra aztertu da, eta ondorioz luzamendua edo moratoria erabaki dezaten gomendatu zaie, bai esplorazio-faseetan, bai esplotazio-fasean.

11.HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Herri-administrazioen zerbitzuko langileen artean euskara zenbateraino erabiltzen den kontuan hartuta, administrazio horiekin hizkuntza horretan aritzeak zenbait kostu ekar dakizkieke herritarrei une honetan: atzerapenak, deserosotasuna, eta bitartekotzarik eza. Txostenean jasotako adibideek argi erakusten dute kostu horiek zenbateraino galarazten duten hizkuntza ofizial bat edo bestea erabiltzea aukera nahiko librea dela adieraztea, bereziki Justizia, Polizia eta Osasun arloetako zerbitzu publikoei dagokienez.

12.KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

Arartekoaren ustez, kontsumitzaileen eskubideak oinarrizko eskubideak dira -Konstituzioan babestutakoak- eta administrazioek zaindu egin behar dituzte. Beraz, interes orokorreko zerbitzu asko benetan erakunde pribatuek egiten badituzte ere, euskal herri-administrazioak egiazko kontrol-lana egin beharra dauka, zerbitzu horietarako sarbide unibertsala eta kalitatekoa herritar guztiei bermatzeko. Eztabaida hori Arartekoak eta EHUK elkarrekin antolatu zuten iazko uda ikastaroan sortu zen.





2012. urtean honako izenburuko lanaren prestakuntza bultzatu zen: *Aplicación de los derechos de las personas usuarias y consumidoras en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Azterlan horretan lantzen da EAEn kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak zer egoeratan dauden teknologia, telekomunikazio eta aireko garraioen sektoreetan.

13.DATUAK BABESTEA ETA INFORMATZEKO ETA KOMUNIKATZEKO TEKNOLOGIAK

Pertsonen bizi-kalitatea hobetu eta beraien eskubideak hobeto babeste aldera, Informazio eta Komunikaziorako Teknologiek, IKTek, berekin dakarten zeharkako balioaren alde egin du apustu Arartekoak.

Helburu horrekin, bi proiektu abiarazi dira 2012an Arartekoaren lanean:

- Herritarrek administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko eskubideen dekalogo. Dibulgazio-tresna berria da, formatu erabilgarrian eta terminologia ulergarria erabiliz egindakoa. Horri esker, herritarrek jakingo dute zer eskubide dituzten administrazioekin harreman elektronikoa izatean.
- Arartekoaren mapak: geolokalizazio proiektu bat da, herritarrek, dibertsitate funtzionala duten pertsonen elkarteek, herri-administrazioek eta Arartekoak elkarrekin lan eginez eta parte hartuz zenbait mapa osatzeko. Euskadiko turismoko, liburategietako eta garraio publikoko baliabideen irisgarritasun mailari buruzko informazio dinamikoa ematen dute.

Orobat, zenbait argazki eta bideo pribatu Interneten zabaldu zirela eta, ofiziozko jarduera bat hasi genuen. Jarduera hori burutzean egiaztatu dugunez, oro har, ez dago araudirik, ez informaziorik, ez kontzientziaziorik, ez arriskua eragozteko portaerarik ere gizarte-sareak eta komunikatzeko sare publikoak erabiltzean. Horrek nahi gabeko dibulgazioa erraztu dezake, artxibo horien zaintza eta transmisioa oso ahula delako.

* * * * *

Bukatzeko, biziki eskertu nahi dut Ararteko erakundeko langileek egiten duten lana. Haien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango litzateke hemen islatu diren jarduera guztiak egitea, bereziki aurten. Izan ere, langileen kopurua gehitu barik, konpromiso eredugarriaz hartu dugu geure gain gure jarduerak izan duen hazkunde ikaragarria, baina horrek ez die kalterik ekarri lanaren kalitateari, erantzuteko denborei, ezta gurera etortzen diren pertsonen erakundeaz adierazi diguten iritzi onari ere. Hori posible izan da aipatu dudan Arartekoko langileen konpromisoari eta lan ezohizkoari esker: eta horrez gain baita ere etxe barruan egin ditugun antolamenduari eta





jarduerari buruzko erreformei esker, eta informatika sisteman aplikazio aurreratuak sartu digulako ere bai. Horrek guztiak berarekin ekarri du Arartekoaren lanaren efizientzi eta produktibitate mailak igo egin direla, arestian onartu dugun plan estrategikoak egiaztatu duenez.

Pertsonaren duintasunaren defentsa, alegia Euskadin bizi diren gizon-emakume guztiek duten bizitza duina izateko eskubidearen defentsa, bai eta eskubide guztien defentsa, bereziki egun pairatzen dugun egoera dela-eta eskubide sozialen defentsa, eta horrekin batera administrazio onaren printzipioa zorrozki betetzea dira gure helburu nagusiak eta gure lanaren oinarriak, herriaren defendatzaile bati dagokion bezala.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen arretagatik, eta legebiltzar ordezkari gisa laguntza eskatu nahi dizuet berriz ere, estatutuak eta legeak eman dizkidaten zereginak egokiro bete ahal izateko.

Eskerrik asko.

